



1. **Sakelako telefonoek erradiazioak igortzen dituzte eta, erradiazio txikiak izan arren, gorputzetik oso gertu egoten dira. Sakelako telefonoa maiz erabiltzen baduzu, hobe duzu aurikular egokituak edo esku gabeko sistemak erabiltzea, telefonoa bera burutik eta gorputzetik urrunduta hitz egin ahal izateko.**
2. **Itxaronaldian ere erradiazioak igortzen ditu telefonoak, baina txikiagoak dira. Saia zaitez beti gorputzari itsatsita ez eramaten, eta itzali ezazu sakelako telefonoa gaezan eta deirik espero ez duzunean.**
3. **Ez ezazu telefonoa hedapen baxua daukazunean erabil. Sakelakoak, seinaletik urruti dagoenean, igortzearen potentzia areagotzen du.**
4. **Zenbaki bat markatu eta dei bat egiten denean igortzen du sakelako telefonoak erradiazio potentziarik handiena, alegia, terminalak konexioa finkatzen duen bitartean. Komeni zaizu segundo batzuk itxarotea telefonoa belarrira gerturatu aurretik. Ez ezazu mugikorra bihotzaren parean eraman, ez eta fraketako poltsikoetan izterondoan ere. Hobe duzu prebenitzea.**
5. **Sakelakoa ez da jostailu bat. Ez da komeni haur txikiek sakelako telefonorik erabiltzea, erradiazioen hartzaille sentikorrenak beraiek dira-eta.**
6. **Ez ezazu sakelako telefonoa edozein motako ibilgailuren bat gidatzen diharduzunean erabil, ez eta esku gabeko sistema edukita ere. Berriketak, zenbakia markatzeak edo dei bat jasotzeak eskatzen duen arretak distrakzioa eragin, arau-hausteak areagotu eta istripu arriskuak biderkatzen ditu.**
7. **Bete itzazu ospitale edota hegazkinetan sakelako telefonoak erabiltzeko ezartzen diren murrizketak eta debekuak. Murrizketa hauek sakelako telefonoen erabilerak medikuntza tresnetan sor ditzakeen interferentziak saihesteko dira, gaixoentzako arriskutsuak izan daitezke-eta. Halaber, ez duzu sakelako telefonoa hegazkinetan erabili behar, hegazkinaren nabigazio sistemetan interferentziak sor ditzakeelako.**
8. **Saia zaitez dei ahalik eta laburrenak egiten. Zure osasunaren eta zure poltsikoaren onerako.**
9. **Taupada-markagailua ezarrita badaukazu, taupadak eragiten dituen gailutik urrutira eduki behar duzu sakelako telefonoa.**
10. **Sakelako bat erosterakoan, erradiazioen eragina gutxitzeko, erradiazio baxuko modeloa aukeratzea komeni da.**

AURKIBIDEA

1. SARRERA	>>> 1	4. JARDUERAK	>>> 3
2. HELBURUAK	>>> 2	5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK	>>> 5
3. EDUKIAK	>>> 2	6. INFORMAZIO INTERESGARRIAK	>>> 5

Argitaratzailea: Kontsumitzailearen Hezkuntza Sarea
<http://www.infoconsumo.es/eecred>

Egileak:

Nieves Álvarez Martín

Laguntzaileak

Leticia Ortíz Bedia, M^a del Pilar González Echezarreta,
 Ana Vallejo Echezarreta, Amaia Saenz, Ainhoa Sanz,
 Nuria Vitoria

Diseinua eta maketazioa:

M^a Isabel Gómez Bedia
 M^a Luisa Lavín Solana

Ale-kopurua:

Autonomia Erkidego bakoitzerako koordinazioa:

Gonzalo Sánchez Moreno (Kantabria)
 Rafael González del Busto (Asturias)
 M^a José López Ródenas (Valentziako Erkidegoa)
 Esther Álvarez Fernández (Galizia)
 Alejandro Salcedo Aznal (Gaztela-Mantxa)
 Arrate Martínez de Guereñu (Euskal Herria)
 José M^a Iglesias Sánchez (Extremadura)
 Susana Gil (Madril)
 Francisca Pérez Jiménez (Aragoi)
 Carmen Herrero Álvarez (Gaztela eta Leon)
 Susana Conde Escorihuela (Errioxa)
 Luis Domínguez Rodríguez (Kanariak)
 Julià Guimerà Gargallo (Katalunia)

Lege Gordailua:

Inprimaketa: J. Martínez S.L.

1. SARRERA

Munduko gainerako herrialdeetan bezalaxe, Espainian ere sakelako telefonoen fenomenoak nagusitu da. 32 milioi herritarrek honezkero sakelako telefonoa dute, biztanle guztien %79 alegia.

Sakelako telefonoak neurri batean gure bizitza aldatu du, orain dela gutxi maila handiko exekutiboek eta maila ekonomiko handiko pertsonak zuten luxuzko gauza zena izugarri orokortu da, horrela, hala umeei nola jubilatuak ere sakelako telefonoak dituzte. Sakelako telefonoak asko ugarritu dira salneurriak oso apalak zirelako, operadoreen politika dela-eta, ahalik eta erabiltzaile gehien hartzeko telefonoa inolako kosturik oparitzen zutelako, eta sakelako telefonoa erabiltzea oso erraza delako.



Sakelako telefonoa behar bezala erabiltzen badugu leku batetik bestera ez gara ibili beharko, urruti dauden pertsonekin harremana mantendu eta argazkien bidez ikusi ere egin dezakegu. Bestaldekik, larrialdiren bat gertatzekotan ere oso erabilgarriak dira. Horren ondorioz, urte gutxitan, gure bizitzetan ezinbestekoa den zerbait bilakatu da, mimatzen dugun, koloreko karkasez janzten dugun edo modan dagoen melodia jartzen diogun tresna txikia.

Horren atzean zerbait gehiago al dago? Horren atzean, negozio handia ere badago tresna txiki honen inguruan. Lehiaketa baterako pertsonak hartzeko sakelako telefono batera egindako dei eta mezuen bidez, melodia bat jaitziz edo pertsona ospetsu batek bere ahotsaz zoriondu edo agurtzeko dei edo mezuez aberasten dena. Sakelako telefonoen munduak bere hizkuntza ere sortu du. Testu-mezuetan eta sakelako telefonoen bidezko txatetan idazketa laburtua eta ia hieroglifikoa erabiltzen dute.

Azken batean, sakelako telefonoa «etxetresna elektriko» bat gehiago balitz bezala, ikuzgailua edo telebista bere garaian izan ziren bezala, izatera igaro da, baina geure buruari honakoa galdetu beharko geniokeela: Sakelako telefonoa gure beharrak asetzeko erabiltzen al dugu ala sakelakoa da erabiltzen gaituena eta mendekotasun berriak sortzen dizkiguna?

2. HELBURUAK

HELBURU NAGUSIAK:

- Gazteei oro har (neska eta mutilei) eta baina helduei ere, sakelako telefonoa behar bezala eta segurtasunez aztertu, erosi eta erabili ahal dezaten beharrezkoak diren ezagupenak eskaintzea.

HELBURU ZEHATZAK:

- Teknologia-mota hau, bere ezaugarriak, erabiltzeko moduak, erabiltzeko beharra, segurtasuna, sakelako telefonoa erabiltzeko praktika zuzenak eta okerrak ezagutzea.
- Sakelako telefonoak eskaintzen dituen edo eskain ditzakeen zerbitzuak ezagutzea.
- Sakelakoa lehiaketa, zozketa, sare eta abarretan erabiltzeko dauden limurtzeko teknikak ezagutzea.
- Sakelako telefonoaren efektuak eta horiei aurrea hartzeko moduak ezagutzea.
- Ongi informatuta egotearen eta zure Autonomia Erkidegoan ezagutzearen garrantziaz jabetzea.



3. EDUKIAK

KONTZEPTUZKOAK:


- Sakelako telefonoaren ezagutza historikoa.
- Erabiltzeko baldintzak eta segurtasuna handiagoa izateko horiei aurrea hartzea.

PROZEDUREZKOAK:

- Sakelako telefonoaren erabilerari buruz aztertzea.
- Sakelako telefonoan erabiltzen dituzten mintzaira-motak aztertzea.
- Kontsumitzaileei sakelakoa eta horren zerbitzuak erabiltzea sustatzeko telebistan ematen duten eta prentsan txertatzen duten publizitatea aztertzea.
- Tailer praktikoak.

JARREREZKOAK:

- Sakelako telefonoaren erabilera seguru eta arrazionalaren balorazio positiboa.
- Tresna hauek erabiltzeak ekar ditzakeen arazoei aurrea hartzeko jarduteko garrantzia baloratzea.



Gai honen inguruan ikasgelan egin beharreko lana ikasleek aldez aurretik dituzten ideiak auzitan jartzen ditugula planteatu beharko genuke. Izan ere, hasieran dituzten ikusmoldeak zalantzan jartzean bakarrik ezagutza berria sortzeko gauza dira. Abiapuntutzat sakelako telefonoak erabiltzearen aldeko eta aurkako ideiak adieraz ditzakegu: egitan beharrezkoa al da?, noiz bai eta noiz ez?... Hau metodologiaren zati nagusia izan daiteke.

4. JARDUERAK

I. JARDUERA: «GURE SAKELAKO TELEFONOA BEHAR BEZALA ERABILTZEN AL DUGU?»

Jardueraren helburua gure ikastetxeko ikasleek sakelako telefonoa behar bezala erabiltzen duen ezagutzea da. Horretara ikasleek test bat dute lan-koadernoaren bukaeran, berau horren **1. fitxan** ere aipatzen dute. Test hori banaka erantzun behar dute. Taldeka ere lan egin dezakete inkesten lana banatzen dutela, adibidez; talde bakoitzak 10 eta 15 ikasle bitartean elkarrizketa ditzake. Informazioa bildu ondoren, emaitzak aztertuko dituzte eta eztabaida bati ekingo diote.



Testaren soluzioak, irakasleentzako azalpenak daudelarik:

- **1. galderaren soluzioa honakoa da: B = 5 puntu.** Sakelako telefonoaren bidez hitz egitean aurikular egokituak edo esku libreko sistema erabiltzen badugu igortzen dituzten erradiazioek ez gaituzte zuzenean ukituko.
- **2. galderaren soluzioa honakoa da: C = 5 puntu.** Telefono batek, itxaroren dagoenean ere, erradiazioak ere igortzen ditu. Hori dela-eta, gorputzari itsatsita ez eramatea eta deirik itxaroten ez badugu itzalita izatea gomendatzen dute.
- **3. galderaren soluzioa honakoa da: C = 5 puntu.** Zenbaki bat markatzeak edo dei bat jasotzeak, nahiz eta esku libreko sistemarik dugun, gidatzen dugun bitartean distraitzen gaitu eta horrek arau-hausteak egitea eragiten du eta istripua izateko arriskua biderkatzen du.
- **4. galderaren soluzioa honakoa da: B = 5 puntu.** Ospitale edo hegazkinak bezalako leku publikoetan sakelako telefonoaren erabileraren debeku eta murrizketek tresna medikoetan edo hegazkinetako nabigazio-sistemetan interferentziak eragitea saihesten dute. Izan ere, bai pazienteengan nola garraio horren erabiltzaileengan arrisku-egoerak eragin baititzake.
- **5. galderaren soluzioa honakoa da: A = 5 puntu.** Sakelako telefonoa izateak ez du esan nahi orduak eman behar ditugula horren bidez hitz egiten. Dei laburrak egiteak diru asko aurrezteak eta gure osasunerako balizko arriskuei aurrea hartzea ahalbidetzen du.
- **6. galderaren soluzioa honakoa da: A = 5 puntu.** Sakelako telefonoa seinaletik urruti dagoenean (estaldura gutxi) bere emisioen potentzia areagotzen da, horregatik, hobe da estaldura handiagoa duen lekua bilatzea deiak egin edo jasotzeko.
- **7. galderaren soluzioa es: C = 5 puntu.** Prebenitu behar dugu eta sakelako telefonoa erostean erradiazio gutxi duena aukeratu behar dugu, horrela, emisio horiek gure organismoan izan dezaketen eragina murriztuko da.

Puntuazioa:

0tik a 15 puntutara: Zure sakelako telefonoari ematen diozun erabilera ez da zuzena eta horren bidez ez diezu begirunerik zuren inguruan dauden pertsoneri. Berau erabiltzea jolasa ez dela jakin beharko zenuke eta modu arrazionalagoan erabili beharko zenuke. Zure inguruan daudenentzat onuragarria izateaz gain, zuretzat ere izango da.

15etik 25 puntutara: sakelako telefonoaren erabilera murrizten saiatzen zara baina oraindik ere arriskuak saihestu ahal dituzu. Zure portaera hobetu behar duzu, hain zaila ez dela ikusiko duzu.

25etik 35 puntutara: Zorionak! Zure sakelako telefonoa behar bezala erabiltzen duzu, jarraitu horrela. Kontsumitzaile arduratsu eta azkarra zara, ez utzi bide hori.

2. JARDUERA: «TEST-MEZUAK (SMS) PRENTSAN ETA TELEBISTAN AZTER DITZAGUN»

A aukera: Telebista

Jardueraren helburua ikasleek testu-mezuen inguruan telebistan mugitzen den negozioa ezagut dezaten da. Jarduera egiteko modua ikaslearen koadernoaren 2. fitxan (A aukera) azalduta dago.

6. atalean bildu duten informazioaren bidez ikasleak orientatu ditzakegu kate bakoitzean eskuratu dituzten emaitzak kritikoki azter ditzaten (kontsumitzaileak sakelako telefonoa erabiltzera bultzatzen dituen publizitateari dagokionez) eta eztabaida egiteko aurkeztu dizkiegun galderei erantzun ditzaten, horien bidez esparru honetan dituzten ohituren berri izan dezaten nahi dugu.



B aukera: Prentsa

Jarduera hau garatzeko hasierako planteamenduak 2. fitxan jasota daude (B aukera). Jarduera hau, berez, A aukeran ditugun hausnarketa eta emaitzak lortzeko alternatiba da (egiten errazagoa dena).

SMS bidaltzen dutenean, ikasleek iragarkian zerbitzua eskaintzen duen enpresa behar bezala identifikatuta dagoela ongi ikusi beharko dute, hori funtsezkoa da erreklamazioa aurkezteko



orduan. Halaber, edozein zerbitzu jaitsi baino lehen (logo edo melodia) bere telefonoaren modeloa horrekin bateragarria dela ere begiratu behar dute.

Egoera honen aurrean, esperimentu txikia egitea erabaki dugu (ikasgelan ere egin daitekeena): aldizkarietan iragartzen dituzten hiru enpresa ezberdinei mezuak bidali dizkiegu, eta emaitza honakoa izan da:

1. Kasuetako batean ez dugu inolako erantzunik jaso melodia bat eskatuz bidalitako mezuari dagokionez. Birritan saiatu ginen baina alferrik izan zen.

2. Bigarren kasua egiazko peleginazio bilakatu zen. Argitalpen horietan agertzen den informazioaren arabera, nahi duzun logo edo musikaren kodea duen mezua bidaltzea nahikoa zen berau lortzeko, baina gure harridurako sakelakoan SMS bat jaso genuen, horretan gure sakelako telefonoaren modeloa adierazten zuen beste SMS bat bidaltzeko eskatu ziguten. Hori egin ondoren, gure sakelakoan beste SMS bat jaso genuen, horretan Web orri baten helbidea adierazi zigutela. Ondoren, web orri horretara jo genuen eta bertatik artxibo bat zuzenean ordenagailuan jaitsi genuen. Artxibo horrekin, gainera, ez genuen deus lortu.



3. Azkeneko kasuan, aldiz, gure helburua lortu genuen testu-mezu bakarria bidali genuela. Nahi genuen melodia eskuratu genuen, baina ustel atera zen ez zituelako betetzen genituen itzaropenak.

Iragarki hauetan, melodiak eta logoak lortzeko mezuak bidaltzeko zenbakiak agertzeaz gain, Interneten sartuz gero edo 806 telefonora deituz ere egin daiteke. Gainera, askotan, dei haien kostuaren azalpena ezin da behar bezala irakurri.

Azkenik, deigarria gertatu zitzaien zerbaite azalduko dugu. Aldizkarietan agertzen diren interneteko orrietako batean sartzean, bai 806 nola mezuak bidaltzeko adierazitako zenbakia, argitalpen horretan agertzen zirenekin ez zetozen bat.

3. JARDUERA: «SAKELAKO TELEFONOARI BURUZKO INKESTA»

Aurreko jardueretan bezala, ikasleen materialaren 3. fitxan jarduera honen planteamendua eta inkesta aurkitu ahal izango ditugu. Inkesta hori oso erabilgarria izango da (1. jardueran planteatutakoa bezala) gure ikastetxean sakelako telefonoari ematen dioten erabilera arrazionalari, sakelakoaren erabilera edo abusuari buruzko informazioa eskuratzeko eta berau aztertuta horren arabera jardun ahal izango dugu familiekin batera.

Irakasleek ikasleen lagundu beharko diete datuak tabulatzerakoan (lan egiteko materialean nola tabulatu behar dituzten azaltzeko adibidea dute), ondorioak ateratzerakoan, ikasgelan aurkezpen zehatza egiterakoan eta horren inguruan eztabaidatzeko orduan.

4. JARDUERA: «SAKELAKO TELEFONOAREN MINTZAIRA»

Ikaslearen koadernoan jaso dutenez, jarduera honen bidez denbora eta dirua aurrezteko asmoz sakelako telefonoen (mezuen) mintzaira egokitzera gazteak eraman dituen fenomeno bitxia aztertu nahi dugu.

Sakelako telefonoaren bidez komunikatzeko erabiltzen dituzten esamoldeak beraiek azter ditzaten interesgarria izan daiteke. Pertsona bakoitzak berak dituen ohiturak azal ditzake ondare komunari testu-mezuetan gehien erabiltzen dituzten esamoldeak eta horien esanahiak eta baita begitartek ere gaineratzen dizkiotela.



Horiek dituzten ortografia eta gramatikako arauak aztertzea interesgarria izango da, gaztelaniak dituenekin alderatzen ditugula. Halaber, gaia beste herrialde batzuetan ere azter ditzakete, Europako Batasunean gehien erabiltzen dituzten begitarteak... eta abar (ingeleza eta frantsesa).

Jarduera horren adibide batzuk interesgarriak diren informazioetan gaineratu duten teorian daude (irakaslearen material honen 6. atala) 1. eta 2. koadroetan hain zuzen ere, bertan ere gramatikako arauak dagokiena ere jaso dute.

5. EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

3. eta 4. jarduerak ebaluatzeke tresna onak izan daitezke. Hala ere, irakasle bakoitzak ebaluatzeke bere tresnak diseinatu eta zirriboratu ahal ditu:

- Behatzeko modeloak.
- Ikasleek, irakasleek, familiek, eta abarrek erantzun beharko lituzketen bestelako galde-sortak ere egin ditzakete, horiek gai hauei buruzkoak izan daitezke:
 - *planteamenduen egokitasuna.*
 - *plangintza: ikerketa, tenporalizazioa eta erabilitako materialak.*
 - *ikasleen egokitzea: interesa, ulermena eta manipulatzeko erraztasuna.*
- Bestelako jarduerak eta tailer praktikoak.

6. INFORMAZIO INTERESGARRIAK

6.1. SAKELAKO TELEFONOAREN HISTORIA



Sakelako telefonoek aldaketa handiak izan dituzte gaur egun erabiltzen ditugunak bezalakoak izatera iritsi arte. 1983. urte inguruan merkaturatu zuten lehendabiziko sakelako telefonoari «adreibila» goitizena jarri zioten. Halere, hamar urte lehenago sakelako telefono bidezko lehen deia egina bazuten.

Telefono historiko horrek 32,5 x 4,4 x 8,75 zentimetroko neurriak zituen, zortziehun gramoko pisua zuen eta itxura karratua zuen, hori zela-eta «adreibila» goitizena jarri zioten. Bateriak itxaroren zortzi bat orduko eta solasaldian ordubeteko autonomia zuen. Garai hartan, gutxi gorabehera lau mila euro balio zuten.

Lehen sakelako telefono horiek, dagoeneko museoetan baino ez daudenek, ez zuten memoriarik, hartzen zituzten deiak identifikatzeko gai ez ziren eta terminal finkoetan egiten dugun bezala hitz egiteko erabiltzen zituzten.

Sakelako telefonoak aldaketa izugarriak izan dituzte oso urte gutxitan, hala teknologiari dagokionez nola dituzten prestazioei eta horrelakorik duten pertsonen dagokienez. 1998. urtean gorakada handia gertatu zen sakelako telefonoen erabileran, Espainian sakelako telefonoen bezero kopurua 6,5 milioi harpidedunera iristen zen, egun dauden 32 milioien aldean eta bi operadorek bakarrik ematen zuten zerbitzu hori. Bezeroek, batez beste, 1.180 minutu urtean kontsumitzen zituzten eta gehienek aurre-ordainketaren formula hartu zuten, hau da, kontraturik edo aldizkako kuotarik gabe.



Urte horretan bertan, 1998.an alegia, GSM delakoa atera zuten, 900 MHz banda zuena. Ordura arte bi teknologia zeuden batera: sarbide analogikokoa, bata, eta sarbide digitalekoa bestea (GSM). 1999. urtean duopolioa bukatu zen, merkatuko hirugarren operadorea agertu baitzen.

Hogei urte hauetan, sakelako telefonoen pisua (hamar aldiz gutxiago) eta neurriak ikaragarri murriztu dira, koloretako pantailak dituzte... Baina bilakaera prestazioetan nabari dute batik bat. WAP teknologia, interneten nabigatzeko aukera ematen zuena, edo GPRS teknologia, datuak masiboki igortzea eta transmititzea ahalbidetzen zuena, multimediako mezuak esaterako (irudiak, testua eta soinua bidaltzea), iritsi ziren. Hirugarren belaunaldiko teknologia berriak (UMTS), 2004. urtean hasiko denak, besteak beste, bideokonferentziak egitea edo bideoak jaiste ahalbidetzen du. Teknologia horrek Interneterako konexio iraunkorra ahalbidetzen du, egiten duten datuen transmisio-bolumena kobratzen dutela.



Sakelako telefonoiaren jaiotzak ekarri duen iraultza teknologikoari gizartean izan duen eragina gehitu behar diogu. Dagoeneko guretzat ez da batere arraroa pasean gaudela inguruan sakelako telefonoa belarriari itsatsita dutelarik solasean edo testu-mezuren bat idazten dabilen jendea ikustea. Sakelako telefonoari esker, komunikatuta beti egongo gara teknologiak ahalbidetzen duen bitartean, mugitzeko askatasuna ematen digu, ordaintzeko beste modu bat gehiago da edo urgentziaren bat konpontzen laguntzen digu, nori ez zaio automobila gelditu errepideren batean...?

Baina ez dute abantailarik bakarrik, sakelako telefonoaren erabileraren ondorioz gure intimitatea ere, neurri batean, galdu dugu, leku publiko edo pribatuetan lehen zegoen isiltasuna, egun, soinu gogaikarriek eta modan dagoen musikariaren abestiek hausten dute. Azkeneko urteotan, sakelako telefonoarekiko mendekotasuneko kasu batzuk ere agertu dira eta adituak sakelako telefonoa gazteen droga berri bihurtu daitezkeen aztertzen ari dira. Arazo horren inguruan, ikerketa batek 10 eta 18 urte bitarteko nerabe espainiarrek astean batez beste hamabi ordu telefonoz hitz egiten dutela ezagutarazi zuen.



Sakelako telefonoan aurki ditzakegun eta arrakasta gehien duen modalitatea, mundu osoko gazteek erabiltzen dutena, testu-mezuena da, European SMS deitzen dutena. Testu-mezuek 160 karaktere, letra eta zenbaki bidaltzeko aukera ematen dute eta zentimo gutxi batzuek baino ez dute balio. Esku artean ditugun zifren arabera, Espainian bakarrik 13.640 milioi testu labur bidali zituzten, 350 milioi euro mugitu zutenak. Testu-mezuek hizkuntza berria ekarri dute, horretan dena sinplifikatzen eta laburtzen dutela.

Txat edo berriketaren fenomenoak ere aipatu behar dugu, SMS mezuen igortzea ere gaintzen duena. Txat hauek mezuak trukitzea ahalbidetzen dute ordenagailuaren aurrean egon behar izan gabe. Gainera, hurbilen dauden erabiltzaileak zein diren jakin dezakegu edo, bestela, gure antzekoak diren pertsonekin harremanetan jartzea ahalbidetzen duten profilak ere erabil daitezke. Aktiboak diren 40.000 bezerok egunean gutxi gorabehera 900.000 mezu idazten dituztela eta Espainian dagoeneko sakelako telefonoen txaten zerbitzuen harpidedunak diren bi milioi pertsona daude, gehien bat harreman pertsonalei buruzkoak direnak.

Osasun-sakelako telefonoaren binomioa ere denen ahotan dagoen gaia da, bertan bakoitzak aburu ezberdina duelarik. Ikerketa asko egin dituzte sakelako telefonoek igortzen dituzten erredakzioei eta horiek osasunean duten eraginei buruz. Espainian sakelako telefonoek telefonoak duen potentziaren inguruko informazioa adierazten duen eta sakelako telefonoa arrazionalki erabiltzeko gomendio orokorrak, 16 urte baino gutxiagoentzat edo pausu-markagailua daramaten pertsonentzat batez ere, ematen dituen etiketatu laburra eraman beharko dute.



Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) kilogramoko lau watt baino gutxiagoa den xurgapen-tasa espezifikoak ez dituela osasunean eragin kaltegarriak ezarri du, Europako Batasunean, berriz, publikoaren 0,08 W/Kgko esposizioaren maila ezarri du.

6.2. IRAKASLEARENTZAKO INFORMAZIOA

Santiago Lorentek (Madrilgo Unibertsitate Politeknikoa) idatzitako eta Estudios de Juventud aldizkarian jaso duten 'Gazteria eta sakelako telefonoa' izeneko artikulua gaineratu dugu, Gazteriaren Erakundeak editatu duena.

«HAIN KRIPTIKOA ETA HAIN BERRIA EZ DEN TESTU-MEZUEN HIZKUNTZA»

Irakurleak ederki dakienez sakelako telefonoan arrakasta gehien duen modalitatea eta Europa eta Japoniako sarrien erabiltzen dutena, testu-mezuak erabiltzeko aukera da, berau teknikoki Europan SMS deitzen zuten eta «I-mode» Japonian. Sakelako telefonoaren alfazenbakizko teklatuaren 12 tekletan, aparatua eskuaren gainerakoarekin eusten duten bitartean, hatz lodiaz tekleatuz 160 karaktere bidaltzeko aukera dago. Gazteak oso trebeak dira hori ongi eta azkar egiten. Egile batek aldizkari horretan dioen bezala, «hizkuntza idatziaren prestidigitadoreak» dira.

Bada, hemen aurkeztu nahi dugun tesiak adierazten du berrikuntza aparatuan dagoela, baina ez hizkuntza idatzian, ez gazteenean eta ezta helduenean ere. Formak aldatu dira eta komunikazio idatziaren funtsezkoa mantendu da.

Víctor Hugo idazleak Les Miserables eleberri epikoa idazten bukatu zuenean granja batera joan zela kontatu ohi dute, baina bere eleberriak irakurleen artean zuen arrakasta ezagutzeko irrikan zegoen. Horrela, bere argitaratzaileari postal bat bidali zion, mezu lakonikoa zuena: «?». Editoreak ez zituen informazio-bit gehiago behar izan, eta oso ongi ulertu zuen Víctor Hugoren mezua, horri beste mezu labur batez erantzun zion: «!». Eleberria oso arrakastatsua gertatu zen. Ez zituzten karaktere gehiago behar izan elkarri ulertzeko.

Hortaz, laburtasuna, laburtzapena, araua da eta ez salbuespena. Hebreerak ez du bokalik erabiltzen bere idazketan. Takigrafia eta estenotipia egun informatikan dauden «zip» delakoak bezain ahaltsuak edo gehiago dira. «OK» hitz ingelesak, bere esanahiaren inguruan bertsio ezberdinak badaude ere, «oll correct» adierazi nahi du (dena zuzena ingeles zaharrean), beraz, 10 karaktere 2tan laburtzen ditu (%80). Ingelesean «&» zeinuan «and» (eta) adierazteko oso ohikoa da. Morse hizkuntzak ingelesez gehien erabiltzen dituzten letra estatistikoak «E» eta «T», «.» eta «-» bezala ditu, hurrenez hurren, transmisioaren arintasuna errazteko, eta, bestalde, laguntza eskatzeko «SOS» hitz unibertsala, musikalki erraz gogoratzekoa den moduan idazten dute: «...—...». «SOS» hitza ez da ezeren laburdura, hizkuntza-hitzarmena baizik, eta 1912. urteko International Radioelectric Convention delakoak Titanic apirilaren 15ean hondoratu zen baino egun batzuk lehenago bakarrik agindu zuen.

Are gehiago, garai guztietan nerabeek berezko hizkuntza erabili dute, bai bere egunkarrietan nola anai-arreben eta lagunaren artean komunikatzeko, eta gurasoek uler ez dezaten (...)

(...) Halaber, ideogramak gune publiko handietan (tren-geltokiak, aireportuak...), trafiko-seinaleetan, intuizioaren arabera modu unibertsalean eta unibokoan (zerbitzuak, jatetxea, elkartzeko gunea, aurreratzea debekatuta dagoela, bazterbidean koska dagoela, izotzean labaintzeko arriskua dagoela, animaliak aske ibiltzeko arriskua dagoela... iragartzen).

Betiko ikasleek beren berezko mintzaira erabili, erabiltzen eta erabiliko dute, zehatza eta laburdurez betea, ikasgelan apunteak hartzeko. (...)

(...) Espainian, zorionez, adierazteko hizkuntza-kode asko daude testu-mezuetan, gainerako herrialdeetan bezalaxe. Zenbait hitz edo esamolde klabetan nolabaiteko adostasuna dago. Hemen gazteek beraiek adierazi dituzten bakar batzuk daude, lehenik izaera afektiboa dutenak jarri ditugu:



1. koadroa (7 jatorrizkoan)

Gaztelaniaz gazteek erabiltzen dituzten ohizko hitz edo esamolde nagusiak

Laburdurak	Hitza/ Esamoldea	Laburdurak	Hitza/ Esamoldea
Tq	Maite zaitut	xo	Baina
bss	Muxuak	nt1d	Ez dut dirurik
mk?	Maite al nauzu?	jodt	Izorra hadi
hl	Kaixo	pdt	Zutaz pasatzen dut
aptc	Nahi dut	npi	Puta ideiarik ez
cnt	Erantzun	clga	Laguna

la artikulugile guztiek SMS mintzairaren adibide ezagunenak eman dituzte, eta irakurleek laburdurek hainbat oinarrizko arau dituztela oinarrian ikusiko dute, ahala nola esaldiaren inzialak hartzea, zerbait esan nahi duten zenbakiak erabiltzea (4= «for», -erako) edo esaldia fonetikoki imitatzea, arau ortografikoak betetzen ez dituztela. Bigarren horrek leku guztietako jakintsuek aztoratzen ditu oso, mintzairaren ortografia eta horrekin batera esentzia edo zerizan nazionala galtzearen beldur baitira (...)

(...) Bitxikeria moduan, eta esan dugun bezala mezuen %70 afektiboak direnez, «Maite zaitut» hainbat hizkuntzatan nola esaten duten ikusiko dugu, jarraian ditugun artikuluetan agertu bezala:

2. koadroa (8. jatorrizkoan) **Hainbat hizkuntzatan «Maite zaitut» adierazteko dauden moduak**

SMS mintzaira	Esanahia	Hizkuntza
TQ	Te quiero	Gaztelaina
Jtem o jt'm	Je t'aime	Frantsesa
lkvjou	Ik houd van je	Nederlandera
Hadili	Hab dich lieb	Alemana
Tam	Ti amo	Italiera
ILUVU	I love you	Ingelesa
llu	I love you	Ingelesa
Luv u	I love you	Errusiera
Mrs	Minä rakastan sinua	Finlandiar
GID	Glad I deg	Norvegiera

Herrialde guztietan, gazteei mezu idatziak hobeto erabiltzen «laguntzeko» hiztegi txikiak argitaratu dituzte, horiek laguntza hori behar balute bezala, eta eduki berberak dituzten web orriak ere agertzen dira. Ageri denez, operadoreak dira fenomeno horretan interesa izan duten lehenak, etekin handiak ematen dizkielako. Espainia ez da salbuespena, eta bertan hiztegi txiki batzuk ere argitaratu dituzte, horiek artikulua honen bukaeran dauden erreferentzietan ageri dira.

Horietako batean, «QRS ABLR DPRSA?» (AZKAR HITZ EGIN NAHI DUZU) kapituluan, «SMSaren ABCa» azaltzen du:

Galdere-ikurrak? Amaieran bat jarrita nahikoa da.
 Zertarako nahi duzu Ha? Akronikoetan eta oso kasu bakanetan erabiltzen dituzte.
 Azentuak? Hori zer da?
 Ohizko hitzen bokalak soberan daude.
 Kontsonanteen soinua erabil ezazu (t=te; k=ka; kb=cabe)
 Kontsonante asko baldin badaude, bokalak irudikatu behar dituzu (KDMOS?)
 CH, X bilakatzen da (mxo=asko)
 LL, Y bilakatzen da (ymme= deitu)
 Ñ erabili: tileta berez dator (MÑÑ= bihar)
 Ikurrek eta zifrek esan nahi dutenagatik edo duten soinua dela-eta balio dute (salu2).
 Urrezko araua: ulertzen den guztiak balio du.



Real Academia de la Lengua delakoari ezin zaio zaplazteko handiagorik eman. Baina komunikazioa badago eta gizateriak –gazteek bereziki- hori egiteko bide berriak, kode berrien bidez, aurkituko ditu. Ez dago berririk eguzkipean. (...)

6.3. SEGURTASUNA: ZER EGIN SAKELAKO TELEFONOA LAPURTZEN BADIZUTE?

2003. urteko ekainaren 30ez geroztik, Espainiako estatuan sakelako telefonoen terminalak blokeatzeko sistema abian dabil. Sistema horren gakoa IMEI zenbakian dago, gure terminala identifikatzeko zenbakia, N.A.N. edo autoen bastidorearen zenbakia bezala.

6.4. NOLA GOZATU ZERBITZU HORRETAZ?

Terminala blokeatzeko eskabidea edozein erabiltzailek egin dezake, kontratua edo aurre-ordainketa egiteko txartela duten ala ez eta telefono-konpainia edozein dela ere.

Horretarako IMEI zenbakia gure konpainiaren operadoreari eman behar diote. Zenbaki horrek 15 digitu ditu eta leku hauetan aurki dezakegu:

- Bateriaren konpartimenduan.
- Sakelako telefonoa enbalatzeko kaxan.
- Sakelako telefonoaren jarraibideen paperetan.
- Erosketaren fakturan.
- *#06# telefonoa ere markatzen badugu (izartxo, traola, 06, traola) eta jarraian deia egiteko botoia markatzen dugula.

Blokeoa 72 ordutan egingo dute. Denbora horretan operadoreek datuak gainerako konpainiekin trukatu dituzte, horrela, sakelakoa lapurtzekotan linea hori sakelakoen terminal guztietatik ezdeus bihurtuko dute.

Zerbitzu hori osatzeko asmoz, lapurtutako sakelako telefono guztien zerrenda bateratua sortu dute, horrela, konpainiek terminala blokeatu ahal izango dute.

6.5. ZER EGIN BEHAR DUT SAKELAKO TELEFONOA LAPURTZEN BADIDATE?

- Telefono-konpainiari ahalik eta lasterren jakinarazi eta IMEI zenbakiaren datuak eman behar ditugu.



Telefónica Movistar: 609 (Movistar sakelako batetik) edo 1485 (telefono finko batetik)
[www.movistar.com]



Vodafone - Airtel: (+34) 607 123 000 [www.airtel.es]



Amena: (+34) 656 001 470 [www.amena.com]

Erreferentziako telefono eta helbide horiek eskatu behar dituzun bestelako informazioak lortzeko ere balio dute, beraz, eskura izatea gomendagarria da.

- Momentu horretan, konpainiak linea bertan behera utziko du eta terminala blokeatzeari ekingo dio.
- Blokeatzeko zerbitzuaren alta ez baldin badugu egin, gainera, lapurreta Ertzaintzari jakinarazi behar diogu, telefono-linearen eta IMEI zenbakiaren datuak ematen dizkiegula.

¹ Informazio hori sakelako telefonoen lapurreta eta ebasketen aurkako prebentzio-kanpainatik eskuratu dituzte, «¡Qué no te dejen sin móvil!» izenekoa, Zientzia eta Teknologia Ministerioak abian jarri duena.



Baina gainera..., ba al dakizu hona ez iristeko prebentzioko neurriak zein diren?

- Toki publikoetan edo jende asko dagoenetan zaudenean, ahal nola tabernetan, jatetxeetan, kafetegietan, garraio publikoetan, dendetan, igerilekuetan edo hondartzetan, sakelako telefonoa ikusgai izan behar duzu beti eta, batez ere, ez duzu inoiz mahai edo erakusmahai gainean, eta ezta irekita dauden poltsa edo bizkar-zorroetan ere utzi behar.
- Edozein arrazoi dela-eta, sakelako telefonoa automobileran uzten baduzu, begi-bistan gera ez dadin saiatu behar duzu.
- Telefonoa erabiltzen ez duzunean, ez duzu agerian izan behar.
- Ezezagun batek dei bat egitea eskatzen baldin badizu, hobe da zuk egin dezazun, telefonoa ez diozu ezagutzen ez diozu inori eman behar.



6.6. HAU INTERESGARRIA GERTATUKO ZAIZU

Ba al dakizu CTM zer den?



Sigla horiek Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea identifikatzen dute, horren helburua telekomunikazioen merkatua, ikus-entzunezko zerbitzuak, telematikoak eta elkarreragileak arautzea da, eta Zientzia eta Teknologia Ministerioari atxikita dago.

Zerbitzu hori sortzearen helburua, hiritarrentzat onuragarria izan dadin, telekomunikazioen eta ikus-entzunezko zerbitzuen, telematikoaren eta elkarreragilearen merkatuan lehia efektiboaren

baldintzak zaintzea, salneurriak zuzen jar ditzaten zaintzea eta arlo honetan sor daitezkeen gatazketan arbitraje-organo izatea da»².

Arautzeko tresna hau inpartziala dela kontutan hartu behar dugu, hau da, sektorean parte hartzen duten alderdi guztien interesak kontutan hartu behar dituela, direla erabiltzaileak, direla sare-operadoreak edo ekipoen fabrikatzaileak, herriaren garapen ekonomiko eta sozialaren onuragarri.

Bere lana nola egiten duen azaltzen duen adibide ezagutu nahi al duzu? arreta jarri:

2003. urteko maiatzean, aurreko lau hilabeteetan 150.000 bezero baino gehiagok aurkeztu zituzten salaketei esker, CTM erakundeak zehapen-prozedura zabaldu du enpresa hauen aurka: Telefónica Móviles, Vodafone eta Amena, erabiltzaileen eramangarritasuneko eskubideari dagokionez arau-hausterik egin duten ikertzeko asmoz. Hau da, erabiltzaile orok bere telefono-zenbakia mantentzeko duen eskubidea telefono-konpainiaz aldatzen denean³.

² Telekomunikazioak Liberatzeko apirilaren 24ko 12/1997 Legean jasota dagoen bezala.

³ Eskubide hori 2000. urteko ekainaren 8ko ebazpenaren bidez onetsi zuten.



6.7. TERMINO ETA KONTZEPTUEN GLOSARIOA

- **ANALOGIKOA:** Ahotsa prozesatzeko modua, irratiko seinale bihurtzen duena E-TACS edo TACS izeneko sistemetan erabiltzen dute. Sistema analogikoak interferentziak, komunikazio-etenak eta mozketak izan ditzake.
- **SMS EDO MEZU LABUR IDATZIEN ZERBITZUA:** Testu-mezuak, gehienez 160 karaktere, beste sakelako telefono batzuetara bidaltzea ahalbidetzen du. Bidalitako mezu bakoitzak telefonoko dei batek baino kostu txikiagoa du eta gazteek asko erabiltzen sistema da.
- **ESTALDURA:** Dei bat mantentzeko moduko seinalea jasotzen duen deien banagunearen esparru geografikoa. Sakelako telefonoen sare baten seinaleak iristen diren eremua.
- **GSM:** Group Special Mobile esamolde ingelesaren siglak. Telefonía digitaleko Europako sistema mugikorra da. GSM Europako sakelako telefonoak 900 Mhztara hartzeko eta igortzeko araua teknikoki konfiguratzeaz arduratu zen erakundea izan zen. Gaur egun erabiltzaile gehien dituen sistema da.
- **WAP:** Hari gabeko aplikazio-protokoloa (Wireless Application Protocol). Internet bidez dabiltzan datuak sakelako telefonoan jasotzea eta igortzea ahalbidetzen du.
- **UMTS:** Telekomunikazio Mugikorren Sistema Unibertsala (Universal Mobile Telecommunications System). ETSI erakundeak (European Telecommunications Standard Institute) garatu duen banda zabaleko eta abiadura handiko sakelako telefoniaren estandarra. Internetera lotzea ahalbidetzen duen hirugarren belaunaldiko sistema da. Eta GSM delakoaren aldean duen abantaila zerbitzu berriak igortzeko gaitasun handiagoa duelarik eskaintzeko aukera da.
- **GPRS:** GSM sarearen maiztasun-maila bera duen teknologia berria da, horretarako 'pakete' bidezko datu-transmisioa erabiltzen du. GSM-n, dei bat egiten duenean erabiltzaileari komunikazio-kanala ematen diote, hori bere horretan mantenduko dute nahiz eta datuak igortzen ez dituzten. GPRS-n erabiltzaileek komunikazio-kanalak dinamikoki partekatuko dituzte, horrela, erabiltzaileak kanala asignatuta izango du datuak igortzen dituenetik bakarrik. GPRS erabiltzeko teknologia hau jasaten duen telefonoa beharrezkoa da. Terminal hauetako gehienek GSM ere jasaten dute, beraz, Ahotseko deiak egin ahal izango ditu GSM sarea ohi bezala erabiliz eta datuen deiak (internetarako konexioa, WAP,...), berriz, hala GSM nola GPRS erabiliz.




- **Uhin Elektromagnetikoak:** Irrati-uhinak ere deitzen dituztenak, soinu-uhinen antzera espazioaren bidez hedatzen diren eremu elektriko eta magnetikoetan dauden aldakuntzak dira. Jatorri naturala edo artifiziala izan dezakete. Jatorri naturaleko uhin elektromagnetikoaren adibidea argia da. Uhin elektromagnetiko artifizialen iturriak seinaleak garraiatzeko eta, horrela, hainbat sistemako informazioa transmititzeko erabiltzen dituzte, hala nola sakelako telefonia, irratia, telebista, etab.




- **ESKU LIBREKO SISTEMA:** Sakelako telefoniaren akzesorioa. Ibilgailu bat gidatzen dugula eskuak bolantetik kendu gabe hitz egitea ahalbidetzen du.

- **MEZU MULTIMEDIA (MMS):** Bere bitarteko guztietan informazioa jasaten duten mezuak dira: testua, irudia, soinua, bideoa, etab. sakelako telefono batean.



- **BEGITARTEA (emotikonoa):** Hitz, sortu berri dutena, 'emotion' –emozioa- e 'icon' –ikonoa- hitz ingelesetatik dator. Teklatuko puntuazio-karaktereen bidez egindako zeinuak dira eta hainbat emozio adierazten dute: poza, tristura, etab. Internet edota sakelako telefonoen bidezko komunikazio idatzi ez formaletan erabiltzen dituzte, hala nola testu-mezuak, posta elektronikoak edo txat edo berriketa..



- **TXAT:** Sakelako telefono baten bidez izaten duten elkarrizketa elkarrengile edo interaktiboa.

